

Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

Ekainaren 22tik 24ra, Zinema eta Giza Eskubideen Erakustaldi bat egingo da Antzoki Zaharrean

Hurrengo **ekainaren 22, 23 eta 24an**, **Zinema eta Giza Eskubideen Erakustaldi** bat egingo da Donostiako **Antzoki Zaharrean**, Donostiako Giza Eskubideen Bulegoak eta Donostia Kulturak antolatuta.

Erakustaldi horretan, hiru dokumental proiektatuko dira, 18. Giza Eskubideen Zinemaldian programatutakoak, baina ezin izan zen egin joan den apirilean, osasun larrialdia zela eta. **Apaga la luz y verás** (2020) dokumental autobiografikoa da, ikusmen gutxiko Ibon Casas musikari eta musikagileari buruz; **Ernest Lluch, libre y atrevido** (2020), berriz, ETAk eraildako politikari sozialistari buruzkoa da; **Bi urte, lau hilabete eta egun bat** (2020) Euskadiko kontzientzia eragozpenaren eta antimilitarismoaren mugimenduari buruzkoa da.

Pelikulak horien lantaldeek eta protagonistek berek aurkeztuko dituzte antzokian.

Antzoki Zaharreko edukiera % 50 murriztuko da eta dagozkion neurri sanitario guztiak beteko dira.

Sarrerak (4,50€) salgai Antzoki Zaharreko eta Victoria Eugeniako leihatiletan eta www.donostiakultura/sarrerak web orrian.

Elkarrizketetarako kontaktuak:

Apaga la luz y verás

Isabel Llauger (prentsa)

677 327 914

isabel.llauger@illagestio.com

Ernest Lluch, libre y atrevido

Josep Morell (zuzendaria)

639 347 607

josep.morell@ottokar.net

Alvar Gordejuela (euskara): 651 464 113

Bi urte, lau hilabete eta egun bat

Izaskun Arandia (Izar Films - ekoizlea)

603 591 221

info@izarfilms.com

Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagitizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

Programazioa

ekainak 22

19:00

Apaga la luz y verás (2020)

Euskadi

Zuzendaritza: Axel O'Mill

Ekoizpena: Aletxu Echevarría, Julian Iantzi, Óscar Terol / BrightVibes

Gidoia: Óscar Terol, Axel O'Mill

Musika: Ibón Casas

Muntaketa: Axel O'Mill

Iraupena: 60 min

*hizkuntza: **gaztelania***

Duela hamar urte publizista ospetsu batek Ibón Casasentzat marka bat diseinatu zuen, eslogan bat (DameTVision) eta asmo handiko proiektua. Zine zuzendari bati begiak maileguan eskatu behar zizkion Ibonek, bere bizitzako filma filmatzen lagun ziezaion. Amets bat, utopia bat, aurrera jarraitzeko pizgarri bat oparitu zioten Iboni, eta oso serio hartu zuen. Bere ametsa lortzeko borroka berezi, nekaezin eta zintzoa, itsutasun arazoak dituzten pertsonen ikusgarritasuna ematen diena, hori da film hau egiteko arrazoi nagusia. Baldintza bakarra jarri zioten: berak hirugarren begia izan behar zuen, eta bere burua grabatu, istorio intimoago eta zintzoago batera iristeko, filtrorik eta manipulaziorik gabe. Film hau oso ikuspegi pertsonala da ikusmen gabeziaren inguruan.

ekainak 23

19:00

Ernest Lluch, libre y atrevido (2020)

Espainia

Zuzendaritza: Josep Morell, Jordi Vilar

Ekoizpena: Ottokar Editora Audiovisual, Grupo Proyección

Ekoizpenkidetza: TVE, EITB, TV3

Ekoizpen eragilea: Jordi Vilar, José Gordejuela, Andrés Luque, Jordi Ambròs

Ekoizpen zuzendaritza: Sílvia Houdier

Ekoizpen delegatua: Elena Gozalo, Daniel Barea

Gidoia: Josep Morell, Montserrat Rossell

Argazkia: Joan Tisminetzky

Musika: Albert Guinovart, Inaki Plaza, Ion Garmendi

Muntaketa: José M^a L. Godínez

Iraupena: 60 min

*hizkuntza: **gaztelania***



Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

Bidaia berezi eta intimo bat Ernest Lluch bizitza pertsonal eta politikora, hura ezagutu zuen jendearen eskutik. Ernest Lluch pentsamenduaren agitatzaile bat izan zen, eta gizon poliedriko bat, ideia berriekin jendea liluratzeko gaitasun handia zuena. Espainia herrialde moderno bat izateko oinarriak finkatzen lagundu zuenetako bat izan zen, osasun publiko unibertsalaren eta doakoaren ezarpenarekin. Euskadin elkar aditzeko zubiak eraikitzen saiatzen ari zen bitartean, Barcelona komandoak bere bizitzari azkena ematea erabaki zuen 2000n.

ekainak 24
19:00

Bi urte, lau hilabete eta egun bat (2020)

Euskadi

Zuzendaritza: Lander Garro

Ekoizpena: Izar Films, Labrit Multimedia

Ekoizpen zuzendaritza: Izaskun Arandia, Amaia Arrieta

Gidoia: Lander Garro

Argazkia: Heidy Otaduy, Iban Toledo, Lander Garro

Musika: Paula Olaz

Muntaketa: Zigor Garro, Lander Garro

Iraupena: 80 min

*hizkuntza: **gaztelania, euskara** / azpiztituluak: **gaztelania, euskara***

Filma irudi batetik abiatzen da: preso bat, Iruñeko kartzela utzi eta hainbat urte geroago, bere ziegara itzultzen da. Egun horretan kartzela betiko eraitsia izango da. Pozik behar luke, baina preso, ziegan dagoela, negarrez hasi da. Ziega hartan eman zituen presoak, intsumitu izateagatik, bere bizitzako 2 urte eta 4 hilabete.

Lander Garro zuzendaria, irudi horretatik abiatuta, 1990 hamarraldiko derrigorrezko zerbitzu militarren kontrako mugimenduaren azterketa bat egingo du: politikoa, soziala, eta intimoa. Horretarako, ziegara sartu zen intsumitu hori eta haren hainbat kide erabiliko ditu: horiek denak preso egon ziren, eta gero beren bizitzak berregin zituzten arren, beren baitan intsumitu izaten segitzen dute.